

HIZKUNTZEN KUDEAKETARI LOTUTAKO PRAKTIKA ONAK

JASOTZEKO FITXA

ERAKUNDEAREN DATUAK (eskatzen diren 5 eremuak bete mesedez)

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezzen.

1. Erakundearen izena:	Danobatgroup
2. Sektorea:	Makina erreminta
3. Langile kopurua:	Danobatgroup Kooperatiba Taldea (Danobat, Danobat Group, Goimek, Goiti, Ideko, Latz eta Soraluze): 900 langile (1300 mundu mailan) Danobat Group, S. Coop.: 34 langile
4. Webgunea:	www.danobatgroup.com
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	Harreman instituzionalak garatzen ditu, politikak, markoak, taldeko kooperatiba denentzako proiektuak eta kooperatibei zerbitzuak eskaintzen dizkie (finantzak, komunikazioa, erosketa, diseinu industrialak, kalitatea, komertziala...).

Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

Solaskidearen izen-abizenak:	
Helbide elektronikoa:	
Telefonoa:	

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	Gizarte erantzukizuna euskararen ikuspuntutik
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	Danobatgroup, kooperatiba taldea izanik, bere balioen artean gizartearekiko erantzukizuna kontuan hartzen da. Euskara plana bultzatzen darama taldeak 20 urtetik gora eta hori urte hauetan guztietan gizarteari jakinarazi nahi izan dio modu ezberdinetan. Plan estrategikoan jasotako helburu bat izanik urte batzuk daramatza proiektu honek. Gizarteari euskararekiko konpromisoaren berri emateko modua: <ul style="list-style-type: none">- Euskararen egunean gizartera zabaldutako lehiaketak: hasieran 6-12 urte bitarteko haurrei zuzendutako ariketak, Danobatgroupek erakundeak dituen herrietako eskolekin koordinazioan. Urte batzuk aurrerago DBH eta LHko ikasleei zuzenduta eta aurrerago gizarte osora zabaldutako lehiaketa, taldeak kooperatibak dituen herrietako herri aldizkariekin elkarlanean. Euskara planaren berri eman izan da modu ezberdinetan (gurasoei zuzendutako gutunak, herri aldizkarietan artikulatuak argitaratuz...)- Herri ekimenetik sortutako ekintzetan parte hartzen da modu aktiboan: Euskaraldia, Korrika, Egunean behin, Euskarak 365 egun, Kilometroak, Ibilaldia...<ul style="list-style-type: none">o Euskaraldia: erakunde moduan parte hartu dugu eta barruan Euskaraldi berezia antolatu izan da, ofiziala izan aurretik praktikak eginda izateko.o Korrika: Kilometroak erosi, korrika egin eta girotzeko ekintzak egin langileen artean.o Egunean Behin galdera erantzunen jokoak: langileen artean giroa sortu da parte hartzera animatuz eta bertako taldeak sortuz eta 2 edizioetako patrozinioa egin du Danobatgroupek. Danobatgroupi buruzko galderak sartu dira bi edizio horietan.- Danobatgroupek kooperatibak dituen herrietako euskara elkarteetan ekimeneetan parte hartu izan du.- Web gunean euskararekiko konpromisoa azaldu eta bertan argitaratu ditu euskararekiko berriak.

Gizarteari PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)